


EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXVI

SAN SEBASTIÁN 30 DE ABRIL DE 1912

N.º 1055



JOSE MARIA IPARRAGIRRE

† 1881-KO APIRILLAREN 6-AN

JOSE MARIA IPARRAGIRRE

IL ZAN 1881^{KO} APIRILLAREN 6^{AN}

R. I. P.

URRECHU-ko Billarreal-en jayo zan 1820^{ko} Abustua-ren 12^{an}. Amabi urte izango zituben, bere gurasoakin Madrid-a jua zanian, eta an Done Isidro-ren ikastechean sartu zan.

Egun-guchi barru il zan Fernando zazpigarren erregia, eta Iparragirre ñori ezer esan gabe, Madrid-tik itzul egin eta oñez etorri zan, Zerain-en zuben osaba-ren gana.

Emendik jua zan karlistetara eta berakin ibilli zan gudak iraun zuben denbora guzian.

Arriaga-n izan zuten jazarran ankian eritu zuten, Kastrejana-ko zubiyan mallatu zioten arpegiya eta Mendigorrian buruba.

Nola gizaseme egoki eta ichurakoa zan, Zumalakarregi-k erregearentzako gudari bereziak ipiñi zituenian, aukeratu zuten Iparraguirre ayen arterako.

Guda amaitu zanian, Frantzira jua zan, eta Italian, Suiza-n, Alemani-n eta Ingalterra-n ere izan zan.

Neurtitzlari bikain eta erezlari yayua, gitarchua eskubetan zubela zorutzen zituben jendiak bere kanta sutzuakin. Ala berotzen zituben entzuleak, eta bein baño geyagotan prantzesen artian izkanbillak izan ziran: batzuben errepublika-ren aldekuak ziralako eta enperadorearen zaliak bestiak.


Ainbeste eztabai, ainbeste zalaparta eta trifulka sortzen zitubelako, Frantzia-ko agintariak bigaldu zuten, debekatubaz geyago erridi artan egotia.

Orduban Londres-ara juan zan. An ikusi zuben Mazarredo gudari-buruba, eta onen bitartez España-ra etortzeko baimena izan zuben.

Biurtu zan beaz. Euskal-erri maitera, eta bere biyotz sutzuaren chingartakin pistu zuben euskaldunen artian lege zarra-ren aldeko naitasun bizi eta pizkorra. Agintari españarrai ez zizayen ondo induri Iparragi-
re-ren egiteko ura, eta *guardia zibillen* artian.....

«Kartzelan sartu naute
poliki poliki
negar egingo luke
nere amak baleki.»

Bigaldu zuten beaz Euskal-erritik, Portugal-a juan zan, eta an iru urte igaro zituben.



«ZOZABARRO CHIKI» BASERRIYA.—IPARRAGIRRE IL ZAN ECHIA

Etorri zan berriro España-ra, eta beñere baño olagara eta naitasun aundigoakiñ etartu zuten bere erritar, bere lagun, eta adiskideak.

Orduban sortu zuben «Gernika-ko Arbola» deitzen dan zortziko illezkorra. Madrid-en *Café de San Luis* izendatutako echean lenengo aldiz entzun zan, eta euskaldunak sutu, zoratu zituben, erezi bikain eta berotsu arrekin.

Zortziko atsegín eta maitati onen alderako zaletasun pizkorra izan

dute gerostik euskaldunak eta ala bein baño geyagotan beren odolakin adierazi izan dute.

Geruago Ameriketara juan zan, zenbait urte igaro zituben, eta biur-tu zan Euskal-errira, urtez zarra, biyotzez gaztia, eta lur atzegin onen alderako naitasunez oraindik gaztiagua.

Ameriketan zebillela esan oi zuben:

«Jaunari eskatzen diyot
graziya emateko
lur chit maite orretan
biziya utzitzeko.»

Eta ala gertatu zan. 1881-ko Apirilla-ren 6^{an} il zan «Zozabarro chiki» izendatzen zan baserriyan.

Iparraguirre juan zan, bañan bere eresi gain gañekuak, Euskal-errira-ren aldeko gogo eta zaletasuna pistutzen dutenak, gure artian dauzkagu. Oyek biziko dira euskaldunak bizi diran bitartian.

EUSKAL-ERRIA

